

EUROPAKO INBERTSIO FONDOAREN FINANTZAKETA - INNOVFIN

**BERRIKUNTZA
FINANTZATZEN
DUGU**



Enpresa berritzaileentzako lehentasunezko finantzaketa

InnovFin finantzaketa-lerroa Laboral Kutxaren eta Europako Inbertsio Fondoaren arteko hitzarmenaren emaitza da. Hitzarmen horrek enpresa berritzaileen finantzaketa sustatzea du helburu.

Finantzaketa jarriko dugu enpresa berritzaileen eskura. EIFrekin (Europako Inbertsio Fondoarekin) dugun hitzarmenari esker, enpresa horiek baldintza ekonomiko hobek eta finantzaketa-bolumen handiagoa lortu ahal izango dituzte.

Xede-publikoa:

- ETEak (250 langile baino gutxiagokoak, eta 50 milioi baino gutxiago fakturatzen edo 43 milioitik beherako balantzea dutenak).
- Kapitalizazio txikiko enpresak (500 langile baino gutxiagokoak).

Finantzaketaren helburua:

- Aktibo finko materialak.
- Aktibo finko ukiezinak.
- Aktibo zirkulatuak.
- Negozioak eskuz aldatzea.

Finantzaketa baldintza berezietan:

- Finantzaketa mota: Maileguak, kreditu-kontuak eta leasinga.
- 7.500.000 €-rainoko zenbatekoa
- Epea: Gutxienez urtebete eta gehienez 10 urte, kreditu-kontuetan: 3 urtera arte

Oharra: Jarduera-sektore hauek kanpo geratzen dira: armen produkzioa eta komertzializazioa, giza klonazioa, tabakoa, alkohol destilatuen produkzioa, ausazko jokoak eta birfinantzaketak.



Finantzaketa honek InnovFin PYMEren bermea du. Horrek Europar Batasuneko Horizonte 2020 Finantza Baliabideen programaren eta Inbertsio Estrategikoetarako Europako Fondoaren (FEIE) finantza-laguntza du. Europar Batasuneko produkzio-inbertsioak finantzatzeko eta finkatzeko eta finantzaketa eskuratzea errazteko helburua du FEIEk.

Argibide gehiago hemen:

http://ec.europa.eu/index_es.htm

http://www.eif.org/what_we_do/guarantees/single_eu_debt_instrument/innovfin-guarantee-facility/

